



Maiatzaren 7ko 492/2007 FORU AGINDUA, Zergen Aholku Batzordearen funtzionamendu araei buruzkoa.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik.
Eguneratutako Foru agindu osoa jasotzen da bertan.

Zergen Aholku Batzordearen osaera, funtzioak eta funtzionamendu arauak erregulatzen ditu IV. kapituluaren abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretuak, zerga urraketen eta zigorraren araubidea garatzeko Erregelamendua onartzen duena zerga kontsulta idatzien eta aurretiazko tributazio proposamenen prozedurak garatu eta Zergen Aholku Batzordea sortzen duenak.

Halere, funtzionamendu arauen hainbat alderdi garatu behar dira, Batzordeari jarduteko prozeduraren marko egokia emate aldera. Horixe da foru agindu honen helburua.

Aipatu foru dekretuak Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatua baimentzen du, amaierako lehen xedapenean, dekretua garatzeko eta bertan jasotakoa gauzatzeko behar diren arau guztiak eman ditzan.

Horren indarrez, hau

XEDATU DUT

Artikulu bakarra

Onartuta geratu dira abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretuak IV. kapituluaren jasotako Zergen Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak. Horien testua jarraian jasota daude, foru agindu honen eranskin gisa.

AMAIERAKO XEDAPENA

Funtzionamendu arauak onartu ondoren Zergen Aholku Batzordeak egiten duen lehen bileraz geroztik aplikatuko dira foru agindu honetan jasotako arauak.

ERANSKINA

Zergen Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak

Lehenen. Zergen Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak

Zergen Aholku Batzordearen funtzionamenduak bete behar ditu Gipuzkoako Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretuak, foru agindu honek eta, ordezkoko gisa, organo elkartuen funtzionamenduari buruzko araudi administratiboak jasotako xedapenak.

Bigarrenen. Zergen Aholku Batzordeko kideen egitekoak.

1. Batzordearen lehendakariari dagokio:

a) Batzordea ordezkatzeko.

b) Ohiko eta aparteko bilerak deitzea eta gai zerrenda finkatzea, betiere gainerako kideek behar den denboraz egin ditzaketenean eskaerak aintzat harturik.

c) Bilerak zuzentzea, eztabaidetan moderatzaile izatea eta, bidezko arrazoiaren bat dagoenean, horiek etetea.

d) Bozketan berdinketarik gertatzen bada, haiek ebaztea, erabakiak hartze aldera.

e) Indarrean dagoen araudia betetzen dela ziurtatzea.

f) Bileren aktak eta erabakien ziurtagiriak ikustea eta onartzea.

g) Lehendakari izateari dagozkion bestelako egiteko guztiak gauzatzea.

2. Batzordeko idazkariari dagokio:

a) Batzordeko kideei bileretarako egin beharreko zitazioak prestatzea.

b) Batzordeko kideen komunikazio egintzak jasotzea eta, ondorioz, bere jakinaren gainean egon behar duten jakinarazpen, datu eskaera, zuzenketa, edo bestelako idazki oro jasotzea.

c) Gaiak prestatzea, eta bileretako aktak idaztea eta baimentzea.

d) Kotsulten eta onartutako irizpen eta erabakien ziurtagiriak egitea.

e) Batzordeko idazkari izateari dagozkion bestelako egitekoak.

3. Batzordeko kideei dagokie:

a) Deialdia jasotzea, bileretako gai zerrenda eta guzti.

b) Bileretako eztabaidetan parte hartzea.

c) Boto eskubidea erabiltzea eta boto partikularra ematea, bai eta beren botoaren zentzua eta horren arrazoiak adieraztea ere.

d) Eskaerak eta galderak egitea.

e) Egitekoak betetzeko beharrezkoa den informazioa eskuratzea.

f) Batzordeko kide izateari dagozkion bestelako egitekoak.

Hirugarrena. Dokumentazioa Zergen Aholku Batzordeari igortzea.

1. Gaiaren arabera eskumena duen departamentuko organoari dagokio Batzordeak aztertu beharreko dokumentazioa idazkariari igortzea.

2. Aurreko apartatuan aipatutako dokumentazioa jaso ote den eta noiz jaso den jasota uzteko aukera ematen duen edozein bitarteko erabiliz igor daiteke.

Laugarrena. Deialdia.

1. Batzordea elkartuko da:

- Ohiko bileran hiru hilabete behin, salbu epe horretan Batzordeko idazkariak ez badu jaso aztertzeko dokumentaziorik.

- Ez-ohiko bileran lehendakariak hala erabakitzen duenean, bere kabuz edo Batzordeko gainerako kideek eskatuta.

2. Batzordeko idazkariak kide bakoitzari igorriko dizkio, gutxienez astebete lehenago, deialdirako zitazioak, bileraren gai zerrenda eta guzti.

Deialdi horrekin batera igorri behar da, oro har, bileran aztertuko den dokumentazioaren kopia bat. Dena den, salbuespen gisa, dokumentazioa kideen esku jar daiteke bilera egin bitartean geratzen den denboran.

Bosgarrena. Bilerak.

1. Batzordea balio osoz eratzeke, bilerak eta eztabaidak egin nahiz erabakiak hartze aldera, lehendakaria eta idazkaria egon behar dira edo,

hala badagokio, horiek ordezkatzan dituzten pertsonak, bai eta gutxienez Batzordeko kideen erdia ere.

2. Zerga eta Finantza Politikako nahiz Ogasuneko zuzendari nagusiek elkar ordeztuko dute, Batzordeko lehendakari gisa jarduteko. Batzordeko idazkariaren ordezkari, lehendakari gisa aritzen ez den aipatu zuzendaritza nagusietako titularra jardungo da.

3. Gai zerrendan sartzen ez diren gaiak ezingo dira eztabaidatu, eta haien inguruan ezingo da inolako erabakirik hartu. Salbuespena izango da, Batzordeko kide guztiak bertan egonik, gehiengoak presaz aztertzeko gaia dela erabakitzen duenean.

4. Boto eskubidez bertaratutako kideen gehiengo botoekin hartuko dira erabakiak, eta berdinketa kasuan lehendakariak erabakiko du kalitateko botoaz.

5. Interes legitimo bat izatea frogatzen dutenek Batzordeko idazkariarengana jo dezakete hark hartutako erabakien ziurtagiria egin dezan.

Seigarrena. Aktak.

1. Batzordearen bilera bakoitzaren akta egin behar du idazkariak, eta aktan hauek jaso: bilerara joandakoak, gai zerrenda, bileraren eguna eta lekua, eztabaidatutako gaien puntu nagusiak, eta hartutako erabakien edukia.

2. Kontseiluko kideek hala eskatzen badute, aktan jasota utziko da zein izan den hartutako erabakiaren aurkako botoa edo abstentzioa, zeintzuk diren boto horren arrazoiak edo zein zentzutan eman den aldeko botoa. Era berean, kide guztiek eskubidea dute beren iritzia edo proposamenak osorik transkribatzea eskatzeko, baldin eta bileran bertan edo lehendakariak ezartzen duen epean, esandakoa hitzez hitz jasotzen duen testua aurkezten badu. Hala eginez gero, jasota geratuko da aktan edo, bestela, kopia erantsiko zaio.

3. Gehiengoz hartutako erabakiarekin ados ez dauden kideek boto partikularra eman dezakete idatziz, berrogeita zortzi orduko epean, eta onartutako testuan sartuko da.

4. Aurkako botoa ematen duten edo abstenitzen diren kideak erabakien ondorioz sor litekeen erantzukizunetik libre geratuko dira.

5. Aktak bileran bertan edo ondorengoan onartuko dira. Dena den, idazkariak ziurtagiria egin dezake berariaz onartutako erabakiez, akta geroago onartzea baztertu gabe.

Akta onartu aurretik egindako erabaki-ziurtagirietan, espresuki jasota utziko da zirkunstantzia hori.

6. Batzordeko idazkariak gordeko ditu aktak, eta elkarren segidan zenbakituko ditu. Aktak fitxategi automatizatuen bidez artxibatu daitezke.

Zazpigarrena. Beste organo administratibo batzuei igortzea.

1. Batzordeak onartutako aurretiazko tributazio proposamenen kontsultei eta ebazpenei emandako erantzunak, beste organo administratibo batzuei igorri behar bazaizkie, Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusiari igorriko dizkio, horretarako, Batzordeko idazkariak, haiek onartu eta astebeteko epean.

Behin erantzunak igorrita, Batzordeko idazkariari horren berri emango dio Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusiak.

2. Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusiak Batzordeko idazkariari jakinaraziko dio zer erabaki duten Batzordeak onartutako aurretiazko tributazio proposamenen kontsultei eta ebazpenei emandako erantzunak jaso dituzten organo administratiboek.

Behin aipatu erabakiak jakinarazita, Batzordeko idazkariak horren berri emango dio gaia dela-eta eskumena duen departamentuko organoari, behar diren ondorioetarako.

3. Era berean, Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusiak Batzordeko idazkariari jakinaraziko dio zer erabaki duten beste herri administrazio batzuen eskariz aipatu organo administratiboek. Horren berri ere emango dio Batzordeko idazkariak gaian eskumena duen departamentuko organoari, behar diren ondorioetarako.

Zortzigarrena. Zergapekoekiko harremanak.

1. Batzordearen bilerak eta berak hartutako erabakiak ez dira publikoak izango. Dena den, horrek ez du eragotziko haien ondorioz egiten diren likidazioak arrazoitzean erabakian aintzat hartu diren izatezko edo zuzenbidezko oinarriak aipatzea.

2. Gaia dela-eta eskumena duen departamentuko organoari dagokio zergapekoari, organismoari edo entitateari jakinaraztea zein egintza erator daitezkeen Batzordeak hartutako erabakietatik.